

ankulegi

antropologia elkarteak | asociación vasca de antropología

jardunaldia XXV

San Telmo Museoan,
2023ko martxoaren 10ean

ETIKAREN BIRAKETA ANTROPOLOGIAN:

BEGIRADA BERRIAK ZIURGABETASUNEN GARAIETAN

Etikak eta antropologiak, historikoki, harreman zaila izan dute. Alde batetik, etnografiatik eratorritako moralitateari eta etikari buruzko ikuspegi anitzek, termino horien definizio filosofiko unibertsalisteri aurre egin behar izan diote. Bestalde, antropologoek, mende bat baino gehiago daramagu gizarte ezberdinetako alderdi moral eta etikoak ikuspegi konparatibo batetik aztertzen; Malinowskitik hasita Mauss, Bateson, Scheper-Hugues, Lambek, Csordas edo Wikianek jarraituz. Ez gara ausartu etikaren kontzeptua auzitan jartzen, edo haren dimentsio eta eremu sozial eta kulturalak modu libreago baten aztertzen, agian, Durkheimen proposatutako moralaren definizio hertsian harrapatuta.



XXI. mendearen hasieran, edo agian lehenagotik, panorama hori aldatzen duten bi gauza gertatzen dira. Lehenik eta behin, gure diziplinan gogoeta egiteko eta deskolonizatzeko nahi batek, hego globaleko antropologia kritikoak aintzat hartu izanak eta eskaera profesional eta sozial aldakorrek, gure praktika eta harreman etnografikoak birpentsatzera behartzen gaituzte, eta erantzukizunaren eta konfidentziasunaren kontzeptuak ez ezik, elkarrekiko zaintzaren, konfiantzaren eta lankidetzaren kontzeptuak ere txertatzera. Bestalde, biraketa etikoa deiturikoak (Laidlaw 2002), Foucaulten etika/moralari buruzko teorizazioek hauspotuta, antropologian etikei eta moralitasunei buruz dugun ikusmoldea problematizatzen eta zabaltzen gonbidatzen gaitu, baita gure begirada hurrengo kontuetara itzultzera ere: premiazko gizarte- eta kultura-gaiek, hala nola hondamendi klimatikoak eta gizakien arteko -eta gizakiz bestekoak diren arteko- harremanek, teknologia berriek, gerrek, migrazioek eta nekro-politikoek, edo osasun-krisiek hartzen dituzten dimentsio etikoetara. Gai horiek guztiek eta beste askok, kolektibo eta komunitate desberdinen errealitate aldakorrek etnografikoki ikertzeko bidean, etikaren prisma nola erabil dezakegun galdetzera garamatzate. Eguneroko praktikak blaitzen dituzten osagai etikoei buruz ere pentsarazten digute, noski. Baita zientziaren moralitasunaren inguruan sortu diren eztabaidei buruz ere; eta, jakina, lekuan lekuko ikuspegi ontologikoen eta hauek zapaltzen dituzten ordena politiko-ekonomiko globalen arteko liskarren inguruan hausnartzera ere.

Ankulegiaren XXV. Jardunaldia,

2023ko martxoaren 10ean ospatuko da, eta goian aipatutako ardatz tematiko nagusietako batzuk jorratzea du helburu. Honako alderdi hauetako batzuk (edo beste batzuk) barnebidu eta zabalduko dituzten komunikazioak bidaltzera gonbidatzen zaituztegu:

(1) etikaren antropologiaren problematizazioak eta eztabaida teoriko eta kontzeptualak, hala nola etikaren unibertsaltasun ontologikoari buruz, edo honek arlo sozial, kultural eta politikoekin duen harremana edota bereizketari buruz;

(2) gogoeta zehatzagoak

(a) gaur egungo eztabaida sozial, kultural, politiko edo ekonomikoen azpian dauden inplikazio etiko edo moraleri buruz (adibidez, migrazioei, pandemia garaiko praktika sanitarioei edo gerrei dagokienez)

(b) kontsiderazio etikoetan gizakiaren -eta gizakiz bestekoen- lekuari buruzko eztabaiden inguruan (adibidez pertsonen, animalien, landareen, naturaren edo hiri-ingurunearen subjektibotasun etikoari buruz)

(3) Etnografiak, aspektu berritzaileak edo konplexuak aurkezten dituztenak, ziurgabetasunen garaiotan praktika etnografiko etiko batek dakarrenari buruz (eta, adibidez, kolektibo edo instituzioekin praktika etnografikoan sortutako gatazka etikoak biltzen dituztenak, edo landa eremuan aurkitutako dilema etikoei irtenbide berritzaileak ematen dizkietenak).



Proposamen horiek euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez bidali beharko dira

<jardunaldiak[arropa]ankulegi[punto]org> helbide elektronikora, 2023ko urtarrilaren 15a baino lehen, eta honako atal hauek izan beharko dituzte:

- Proposamenaren mota: komunikazioa, posterra, tailerra, ikus-entzunezkoa edo beste formatu batekoa.
- Izenburua: titulu nagusia eta azpitulua, hala badagokio.
- Egilea: izen-abizenak, posta elektronikoa, diziplina eta erakunde-filiazioa.
- Deskribapen laburra: proposamenaren ideia nagusiarri buruzko sinopsia. Jardunaldia hainbat komunikabidetan iragartzeko erabiliko da. Gehienez 30 hizekoa.
- Deskribapen luzea: proposamenaren xedearen, metodoaren eta inplikazioen deskribapen laburra. Lana ebaluatzeko eta, hala badagokio, jardunaldiaren programarekin batera eta webgunean iragartzeko balioko du. Gomendatutako luzera: 150-200 hitz.
- Hitz-gakoak: 2-3 hitz bakarrik.

Jardunaldia San Telmo Museoan (Donostia) ospatuko da. Otsailaren hasieran, proposamenen egileekin harremanetan jarriko gara proposamenak onartu edo ukatu diren jakinarazteko.

ANKULEGIK gonbidapena luzatzen dizue parte hartzaileei zuen artikulu-proposamenak bidal ditzazuen **aldizkaria@ankulegi.org** helbidera. Baldintza formalak eta argitaratzeko arauak hemen aurki daitezke: **<https://ankulegi.hypotheses.org/nola-argitaratu>**